# CENTRO DE TRANSFERENCIA DE TECNOLOGÍA

# TEKNOLOGIA TRANSFERITZEKO ZENTROA



## ZER DA TEKNOLOGIA TRANSFERITZEKO ZENTROA?

**TTZ** administrazio elektronikoa garatzeko interesgarriak diren irtenbide teknikoak (zerbitzuak, garapenak, azpiegiturak, araubidea, etab.) zabaltzeko eta berrerabiltzeko ataria da. Hala, administrazio elektronikoaren informazio teknikoa ezagutzeko oinarri bat eratzen da.

GOBIERNO DE ESPAÑA

MINISTERIO DE ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

CTT

## NORI ZUZENDUTA DAGO?

TTZ oso interesgarria da edozein Herri Administraziotan administrazio elektronikoaren eremuan lan egiten duten profesionalentzat:

- Estatuko Administrazio Orokorra
- Autonomia Erkidegoak
- Toki Erakundeak
- Unibertsitateak
- Europako Batasuna
- etab.

## ZEINTZUK DIRA TTZ-REN HELBURUAK?

Herri Administrazioetan berrerabiltzeko software gaitegi komun bat sortzea.

Administrazio elektronikoaren eremuan ematen diren hainbat irtenbide teknikori (araubide, zerbitzu, azpiegitura, garapenei) buruzko ezagutza-base komun bat eratzea.

Leku zuzendu eta independenteak eskaintzea, non edozein administraziok bere TIC proiektua argitara dezakeen, bai eta proiektu horien bilakaera kudeatu ere.

Administrazio elektronikoaren eremuko esperientziak konpartitu eta lankidetzan aritzeko tokia sortzea.



## NOLA DABIL?

Atariaren funtzionamendua bi oinarrizko aldetan datza:

- Proiektua lan-unitatea oinarrizkoa da eta haren inguruan eskainitako funtzionaltasun guztiak antolatzen dira.
- Sarbide-maila desberdinek informazioa eta erabiltzaileei proiektu bakoitzean eskainitako zerbitzuak pertsonalizatzea ahalbidetzen dute.

## NORK PARTE HAR DEZAKE?

Edozein Herri Administraziok TTZ-ren proiektuak erabil ditzaketen erabiltzaile erregistratuak eduki ditzake, bai eta proiektuetan aktiboki parte hartu ere. Horretaz gain, zabaldu eta bestelako administrazioekin konpartitu nahi dituen proiektu berriak barru sartu ere sar ditzake.

## ZEIN FUNTZIONALTASUN ESKAINTZEN DITU?

- Edukien kudeaketa. Proiektuaren datu interesgarri eta oinarrizkoak, ezaugarriak, funtzionamendua eta zehaztasun teknikoak.
- Gauza berriak argitaratzea.
- Inkestak argitaratzea.
- Foroetan parte hartzea.
- Proiektuan egiteko Atazen Kudeaketa.
- Agiriak argitaratzea.
- Ekitaldien erregistroa (iradokizunak, gertaerak, eskaerak, etab.)
- Behera kargatzeko gunearen kudeaketa erabiltzaileentzako azken produktuekin (iturri-kodea eta erlazionatutako eskuliburuak, arau edo gomendioaren agiria, etab.)

## NOLA BEGIRATU TTZ?

TTZ Interneten eta SARA Sarearen bidez ikus daiteke:

**http://www.ctt.map.es**

Interneten bidez sartzekotan, proiektuen informazio publikoa besterik ez da ikusten. SARA Sarearen bidez, berriz, erregistratutako erabiltzaileei eskainitako proiektuen informazioa eta zerbitzuei buruzko zehaztasunak ezagut daitezke.



# INFORMAZIOA ESKATZEKO

www.ctt.map.es

**Dirección General para el Impulso de la Administración Electrónica**
**Ministerio de Administraciones Públicas**
**C/ María de Molina, 50**
**28071 Madrid**

**@ Posta Elektronikoa: soporte.ctt@map.es**

**☎ Telefonoa: 902 934 405**

GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS

MAP-S.G.T. — NIPO: 326-08-035-0